

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

9/2019 Foru Araua, martxoaren 27koa, Aguraingo Udaleko Aurrekontu eta Finantza Bideragarritasun Plana amaitzekoa, horren helburuak bete direlako

Arabako Batzar Nagusiek, 2019ko martxoaren 27an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

9/2019 Foru Araua, martxoaren 27koa, Aguraingo Udaleko aurrekontu eta finantza bideragarritasun plana amaitzekoa, horren helburuak bete direlako.

ZIOEN AZALPENA

Une hartako egoera ekonomikoa zela eta, abenduaren 20ko 17/2011 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoaren 2012rako aurrekontua gauzatzearenak, xedapen gehigarrietatik hama-seigarrenean xedatu zuen toki erakundeek, salbuespenez, berariazko bideragarritasun plan bat eska zezaketela, oinarriko zerbitzu publiko arruntekin jarraitu ahal izateko eta finantza karga ordaindu ahal izateko.

Hori dela-eta, Aguraingo Udalak, Toki Administrazioaren Sailak lagunduta, finantzako bideragarritasun plan bat egin zuen beste zorpetze bat eskatzeko, 3.705.893,93 eurokoa, 2007ko, 2008ko, 2009ko eta 2010eko ekitaldietan eta 2011ko lehenengo sei hilabeteetan erakundeak kontratistekin eta erakundeekin zituen zor metatuen ondorioz.

Zegokion foru arau proiektua izapidetu ondoren, Arabako Batzar Nagusiek onarpena eman zioten Aguraingo Udalaren aurrekontu eta finantza bideragarritasun planari, apirilaren 3ko 8/2012 Foru Arauaren bitartez.

Plana 2012-2026 aldirako egin zen.

Kontu-hartzailtzak 2018ko ekitaldia ixtean kalkulatu zituen kopuruak honakoak dira:

– 2018ko abenduaren 31ra arte metatutako gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina positiboa da, hain zuzen, 489.077,19 euro.

– 2018ko abenduaren 31n, diru sarrera arrunten arteko zor bizia ehuneko 75,69 zen, planean, ordea, ehuneko 112,58 izatea aurreikusten zen. Planaren helburuetako bat zen ehuneko 80 baino gutxiagora murriztea.

– Erakundeak 2018ko ekitaldia aurrezki garbi positiboarekin likidatuko du.

Aguraingo Udalbatzak, 2019ko urtarrilaren 9an, aho batez erabaki zuen kontu eta finantza bideragarritasun plana finantzatzeko eskaera egitea, planaren helburuak bete zituztela uste zutelako.

Horregatik guztiagatik, Arabako Batzar Nagusiei proposatu behar zaie plana amaitutzat eman dezatela, bertan jasotako helburuak Aguraingo Udaleko aurrekontu eta finantza bideragarritasun plana onesten duen apirilaren 23ko 8/2012 Foru Arauan ezarritako aldia baino lehen bete direlako.

LEHENENGO ARTIKULUA. Onestea Aguraingo Udaleko aurrekontu eta finantza bideragarritasun plana amaitzea, horren helburuak bete direlako.

BIGARREN ARTIKULUA. Foru Arau honek ondorioak izango ditu 2018ko ekitaldiko udal aurrekontuaren likidazioan egiaztatzen bada planaren hasierako helburuak bete direla.

HIRUGARREN ARTIKULUA. Foru arau hau 2019ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin onesten da, ALHAOn noiz argitaratzen den gorabehera.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko martxoaren 27a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA